

JAKINARAZITAKO JARDUERAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA

LEHENENGOA.- XEDEA.-

Ordenantza honen xedea da lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 207.5 artikuluan aurreikusitakoa garatzea, "jakinarazitako jarduerak" arautzeko. Jarduera horiek egiteko edo burutzeko, lizentzia lortu ordez pertsona interesatuak Administrazioari idatziz aurrez jakinaraztea nahikoa izango da, garrantzi tekniko txikiko lanen kasuan. Kasu horietan ez da proiektu teknikorik aurkeztu beharko. Ez da horrelakorik beharko, halaber, ordenantza honek aurreikusitako beste jarduera batzuetan.

BIGARRENA.- JAKINARAZITAKO JARDUERA.

Garrantzi tekniko txikiko obra horietarako, titularitate eta jarduera aldaketetarako nahiz ordenantza honetan aurreikusten diren bestelako jardueretarako baimenak eskuratzeko nahikoa izango da eskatzaile fisiko edo juridikoak aurretiaz eta idatziz jakinaraztea, xede horrekin prestatutako inprimakia betez.

Jakinarazpen horrek, oro har, indarrean dauden Ordenantza Fiskalak betez eta kasuan kasuko jarduera jakinaraziaren arabera, EOZ, tasa, prezio publiko edota udal zerga egokien autolikidazioa ekarriko du berekin.

HIRUGARRENA.- JAKINARAZITAKO JARDUERA BIDEZKO OBRAK.-

Aurretiaz jakinarazitako jardueren prozeduraren bidez eskuratzen diren lizentzien xede diren obrek ondoko baldintza hau bete beharko dute ezinbestean:

Egiturazko elementuengan, eraikinaren segurtasunarengan eta egonkortasunarengan nahiz eraikinaren eraikigarritasunarengan (tarteko solairuak) eragina ez duten obra txikiak izan behar dute.

Obra horiek ondoko hauek dira:

- 1.- Etxebizitzak, atariak, eskailerak, leihoak eta abar zaharberritzea.
- 2.- Terrazak edo barruko patioak birgaitzea (zolatzeak eta iragazgaizteak...).
- 3.- Garajeak asfaltatzea edota margotzea, edo garajeetako atek ordeztea.
- 4.- Hirugarren sektoreko jardueren (merkataritza, bulegoak) irekitze- eta jardueralizentzia duten lokalak eta jarduera sailkatu gabeak dituzten (Eusko Jaurlaritzaren 165/99 Dekretua) nahiz Eusko Jaurlaritzaren 171/85 Dekretuaren Laugarren Atalean sartuta ez dauden biltegiak zaharberritzea: (ikuztegiak, okindegiak, supermerkatua,

harategiak eta arrandegiak).

- 5.- Etxebizitza eta atarrietako instalazio elektrikoak, iturgintza-lanak, gasa eta saneamendu-sarea berritzea.
- 6.- Saneamenduko eta ur edangarriko sare pribatuen premiazko konponketak, ihesak, hausturak eta abar direla-eta.
- 7.- Teilatutan eta fatxadetan egiten diren premiazko konponketa txikiak (teila-erorketak, lauza txikiak, zarpiatuak, estaldurak, erretenak, eta abar.))
- 8.- Behe oineko lokalen eta etxebizitzaren kanpoko itxura aldatzeko obrak, horiek fatxaden elementu komunak aldatzea eragiten ez dutenean (toldoak, hesi-sareak, pintura, zurgintza bikoitza, pertsianak eta antzekoak).
- 9.- Saltokien osasungarritasuna eta apaindura hobetzeko obrak (instalazio elektrikoa, ur-hartunea, margotze-lanak, zoladura, barruko eraispenak, eta abar).
- 10.- Jakinarazitako jarduketaren luzapenak.
- 11.- Hirigintza-lizentzien luzapenak. Luzapenaren xede den lizentzia eskuratu den egiaztatuko da.
- 12.- Antzeko beste batzuk.

Lokalei eta garajeei dagozkien obratan irekitze- eta jarduera-lizentzia duten egiaztatuko da.

Partidaka zehaztutako aurrekontua erantsiko da, materialen, eskulanaren eta makineriaren aurrekontuak barne.

Jarduera berri bat ezartzeko edo lehen aldiz ipintzeko lokalaren egokitze edo gaikuntzarako obraren baimena, edozein kasutan, ohiko prozedura bidez emango dira, baita ere, irekitze hori jakinarazitako ekintza bidez lor daitekeen jarduerarako denean ere.

LAUGARRENA.- JAKINARAZITAKO JARDUEREN BIDEZKO SAILKATU GABEKO JARDUERAK.

Sailkatu gabeko jarduerari dagokienez, Jakinarazitako Jardueren prozeduraren bidez baimenduko dira:

1.- TITULARITATE ALDAKETA.- Jakinarazitako Egintza bidez egingo da, lagatzen duen titularraren jarduera Sailkatua izan edo Sailkatu Gabea izan, baldin eta titular berriak burutu behar duen jarduera sailkatu gabea bezala hartzen badu Eusko Jaurlaritzaren 165/99 Dekretuak, eta ez badago Eusko Jaurlaritzaren 171/85 Dekretuaren bidez arautua, eta ez badago salbuetsia 2006/123/CE Zuzentarauko 2. artikuluan.

Kasu horietan, jakinarazpena irekitze- eta jarduera-lizentziaren titularra den pertsona lagatzaileak eta pertsona eskuratzzaileak sinatu beharko dute.

Egiaztatu beharreko baldintzak eta erantsi beharreko dokumentazioa:

- Irekitze- eta jarduera-lizentzia duen egiaztatuko da, eta baita pertsona lagatzailea benetan titularra den ere.
- Pertsona eskuratzailerak Ekonomia Jardueren Zergan (EJZ) alta emana duela egiaztatuko da.
- Pertsona eskuratzailerak Zaborren eta Estolderiaren Tasan alta emana duela egiaztatuko da.

2.- Irekitze- eta jarduera-lizentzia indarrean duten lokaletarako JARDUERA-ALDAKETA.-

Jakinarazitako Egintza bidez egingo da, lagatzen duen titularraren jarduera Sailkatua izan edo Sailkatu Gabea izan, baldin eta egin nahi den jarduera berria sailkatu gabea bezala hartzen badu Eusko Jaurlaritzaren 165/99 Dekretuak, eta ez badago Eusko Jaurlaritzaren 171/85 Dekretuaren bidez arautua, eta ez badago salbuetsia 2006/123/CE Zuzentarauko 2. artikuluan.

Erantsi beharreko dokumentazioa:

- Baja ematen den jarduerak irekitze- eta jarduera-lizentzia duen egiaztatuko da, eta baita pertsona eskatzailea benetan titularra den ere.
- Jarduera berriak Ekonomia Jardueren Zergan (EJZ) alta emana duela egiaztatuko da.
- Jarduera berriaren pertsona titularrak Zaborren eta Estolderiaren Tasan alta emana duela egiaztatuko da.

3.- Titularitate-aldaketako kasuetan nahiz jarduera-aldaketako kasuetan, jakinarazpen baimendua Lurralde Politikako Arlori (lizentzien atala) igorriko da, dagozkion erregistroak eguneratu daitezzen.

4.- SAILKATU GABEKO EDO SALBUETSIK DAUDEN JARDUEREN IREKITZEA ETA FUNTZIONAMENDUA, Jakinarazitako Egintza bidez tramitatzen direnean.

A) 165/99 DEKRETUAREN III. ERANSKINEKOA

1.- 500 m²-tik beherako azalera erabilgarria duten merkataritza-establezimenduak, sute-sektore bakoitzeko guztizko su-karga 200 Mcal/m²-tik beherakoa bada, eta funtzionamendu-ordutegia 8:00etatik 22:00etara bitartekoa bada.

SALBUESPENAK:

- Suharberak eta/edo arriskutsuak diren produktuentzat, 400 kg. baino gehiagoko biltegiatzea duten establezimenduak.
- Loteriako establezimenduak, apusturako lokalak (Zuzentaraia)

-(ikuztegiak, supermerkatuak, okindegiak, harategiak eta arrandegiak). (171/85 Dekretua)

Biltegiak, horiek 500 m²-tik beherako azalera erabilgarria badute, sute-sektore bakoitzeko guztizko su-karga 200 Mcal/m²-tik beherakoa bada, eta funtzionamendu-ordutegia 8:00etatik 22:00etara bada.

SALBUESPENAK: hurrengo biltegiak: produktu kimiko, produktu fitosanitario, pintura, artifiziozko lehergailu, kautxu, plastiko, erregai solido, likido edo gaseosokoak eta/edo produktu arriskutsuen biltegiak.

2.- Zerbitzu-jarduerak.

- Bulegoak, nola diren higiezinena, bidai agentziak, aholkularitza, eta antzekoak. (horiek etxebizitza-eraikinetako beheko solairutan, salbuesitako eraikinetan eta sarrera independentea duten etxebizitza-eraikinetako solairutan kokatzen direnean).

- Komunitateen egoitzak, zaharren egoitzak, ostatuak eta antzekoak.

- Hotelak eta antzekoak.

- Erabilera kolektiboko igerilekuak eta kiroldegiak.

- Kultur-zentroak eta/edo elkarten zentroak (etxebizitza-eraikinetako beheko solairuan...) dantza-, kantu- edo musika-jarduerak izan ezik.

- Gimnasioak (etxebizitzetako beheko solairuan...) kantu, dantza edo musika jarduerarik egiten ez dutenak.

- Hileta jarduerak. errelekurik gabeko hilerrak, ehorztetxeak eta errelekurik gabeko tanatorioak.

SALBUESPENAK:

-Hurrengo bulegoak: banketxe, aseguru, aldi bateko lana eskaintzen duten enpresak, notariotzak, merkataritzako erregistroak (zuzentarauaren eremutik kanpo daude).

-Hurtzaindegiak eta irakaskuntzako jarduerak (akademikak)

- Informazioa tratatzeko eta komunikatzeko zerbitzuak (kalkulu-zentroak, datu-bankuak, irati eta TBko errepikagailuak, satelite bidezko errepikagailuak, informazioaren tratamendu elektronikoko edo informatikoko zentroak, estazio irati-telefonikoak eta irati-telegrafikoak, irati eta TBko emisoreak, alarmak kontrolatzeko eta poliziari abisatzeko zentralak eta antzekoak), etxebizitza-eraikinetako beheko solairuetan edo eraikin bakarretan badaude.

- Farmazia establezimendu eta zerbitzuak eta sanitate-zentroak.

-Komisariak eta Segurtasuneko Zentroak

3.- Instalazio osagarriak (galdara gelak, aire girotuaren instalazioak, hotzerako ganberak, erregai biltegiak (10.000 l. arte), transformaziorako zentroak...

B) 165/99 DEKRETUAREN I. ERANSKINEKOA

1., 2. eta 3. ataletan adierazitako jarduerak, aipatu I. Eranskinean jasota datozen bezala.

Artikulu honetako A) atalean adierazitako jarduerak, hiri-lurzoru industrialean kokatu nahi direnean.

C) II. ERANSKINEKOA: 165 Dekretuan adierazten den bezala.

Erantsi beharreko dokumentazioa:

- Eskari Inprimakia betetzea.

-Proiektu teknikoa, 165/99 Dekretuaren IV. Eranskinaren arabera, Ingurumena Babesteko 3/98 Lege Orokorrean aurreikusitako jarduerarako baimena eskatzen salbuetsitako jarduerari dagokiena.

-Jarduera Ekonomikoen gaineko zergan (JEZ) alta emateari buruzko kopia.

-Altaren kopia, Zarama eta Estolderiako Tasei dagokiena.

BOSGARRENA.- BIDE PUBLIKOAREN OKUPAZIOA

1.- BIDE PUBLIKOA edukiontziekin, pilaketekin, makinekin, aldamiuekin, hesiekin eta abarrekina OKUPATZEA.

-Egiaztatu beharreko baldintzak eta erantsi beharreko dokumentazioa:

-Dagokion obra-lizentzia duen egiaztatuko da (lokalen garbiketarako salbu).

-Lekua (kalea eta zenbakia), azalera eta okupazio-epea.

SEIGARRENA.- APARKATZEA DEBEKATZEKO PLAKAK

1.- Egiaztatu beharreko baldintzak:

- Pabilioiak edo lokalak irekitze- eta jarduera-lizentzia duen egiaztatuko da.

- Garaje eta aparkalekuen jarduerak aparkatzea debekatzeko planak edo ibi iraunkorreko plakak eskuratzeko eskubidea dute udal mugarte osoan.

- Gainerako jarduerak Hiri-lurzoru Industrialean kokatuta badaude bakarrik eskuratu ahal izango dute aparkatzea debekatzeko plaka.

- Zintarria beheratzea behar ez dutela egiaztatuko da.

2.- Aurkeztu beharreko datuak:

Garaje eta aparkalekuetarako plakak:

-zenbat ibilgailu eta igarobidearen luzera adieraziko dituzte.

Gainerako establezimenduentzat:

-Jarduera-mota (industrialak edo merkataritzakoa) eta igarobidearen luzera adieraziko dituzte.

ZAZPIGARRENA.- LOKALAREN FATXADARI ATXIKITAKO ERROTULUA.

1.- Aurkeztu beharreko datuak:

-Errotuluaren neurriak eta ezaugarriak
-Argazkia, errotuluaren kokapena adieraziz.

ZORTZIGARRENA.- PROZEDURA.-

Pertsona eskatzaileak bi aletan beteko du xede horrekin prestatutako jakinarazpen-inprimakia. Inprimaki horri Ordenantza honetan balizko ezberdinentzat eskatutako dokumentazioa erantsiko zaio. Udal Ordenantza Fiskal egokien arabera aplikagarri diren EOZ, tasa, prezio publiko edo zerga ezberdinen autolikidazioa gauzatuko da, Sailkatu Gabeko (Salbuetsiak) Jardueren Irekitze eta Funtzionamenduari dagokion jakinarazitako egintzetan kenduta, eta Tasa horien likidazioa Zerga Atalak egingo du.

Egiaztapen egokiak egin ondoren, eta, hala balegokio, aurkeztutako dokumentazioa zuzendu ondoren, pertsona eskatzaileari bete duen jakinarazpen-inprimakiaren kopia bat itzuliko zaio, Jakinarazitako Jardueraren zigiluarekin.

2.- Salbuetsitako Jardueren Irekitze eta Funtzionamendurako aurkeztutako dokumentazioa Hirigintzako Atalera igorriko da, Udal Zerbitzu Teknikoek dokumentazio teknikoaren zuzentasuna azter dezaten. Egiaztapen hori faboragarria bada, espedientea berriro ere Hirigintzako Atalera (Baimenak) igorriko da, dagozkion erregistroak eguneratzeko. Ondoren, hori Zerga Sailera bidaliko da, zergari dagokion dokumentazioa egiaztatu ondoren, Establezimenduen Irekitzeari dagokion Tasa likidatua izan dadin.

BEDERATZIGARRENA. ESKAKIZUN OROKORRAK.-

1.- Sistema honekin tramitatutako lizentziak edo baimenak ez dira lortutzat joko

isiltasun administratiboagatik, hirigintzako legediaren edo planeamenduaren aurka badoaz. Ez dute eraginik izango agiri okerrekin, osatu gabeekin edo desegokiekin jakinarazitako jarduerak.

2.- Prozedura hau Ordenantza honetan ezarritako balizkoetan eta baldintzatan bakarrik izango da aplikagarri. Ordenantza honetan sartu ez diren beste jarduera guztiak eskariak egiteko prozedura normalaren eta hirigintza-lizentziei, jarduera sailkatuen lizentziei, otsailaren 27ko 3/98 Legean aurreikusitako jarduera-lizentzia eskuratzetik salbuetsita dauden jardueren lizentzien edo ingurumen-babeserako lizentziei aplikagarri zaien araudian araututako berariazko ebazpenaren mende daude.

3.- Jarduera horiek duten prozedurazko araubideak ez ditu horien titularrak salbuesten eginbehar fiskal, administratibo eta zibiletatik, eginbehar horiek indarrean dauden araudiak ezarriak badira eta ezar badaitezke.

HAMARGARRENA.- JAKINARAZITAKO JARDUERAREN ONDORIOAK.-

1.- Jakinarazitako jarduerak eraginak izango ditu Udalaren eta bere jardueraz ari diren subjektuaren artean, baina ez da aldatuko honen eta beste pertsonen arteko egoera juridiko pribaturik. Jabetza eskubidea alde batera utzita egingo dira eta hirugarrenei kalterik egin gabe, eta erantzukizun osoa titularrak izanda egingo dira.

2.- Deskribatutako lanak eta jarduerak bakarrik egin ahal izango dira. Berariaz aipaturik ez dagoen jarduera motaren bat eginez gero, dagokion baimena eskatu beharko da, jar daitezkeen zigorrei kalterik egin gabe, hirigintzako arau-hausteagatik espediente zigortzailea ireki ondoren.

3.- Interesatuak udal zerbitzuen esku izango du eginbidetutako jakinarazpena duen inprimakia, eta zerbitzu horietako udal langileei obran edo jardueran sartzeko baimena emango die, ikuskatzeko eta egiaztatzeko.

4.- Jakinarazpenetik sei (6) hilabeteko epean egin beharko dira lanak, eta epe hori igarotakoan Jakinarazitako Jardueraren baimena iraungitza joko da, interesatuak luzapena edo atzerapena eskatu ez badu behintzat obrak egiteko, horrela egin badu, epea kontaketa eten egingo da. Obrak egiteko luzapena, egokiro arazoitua izango dena, eskatutako jarduera egiteko, gehienez ere, beste sei (6) hilabeteko epekoa izan daiteke.

5.- Inola ere ezin da lanik edo jarduerarik egin hirigintzako ordenazioaren eta indarrean dagoen legediaren aurka doanik.

6.- Eragiten dien neurrian, Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legea beteko dute, 68/2000 Dekretua, eta martxoaren 17ko 314/2006 E.D.an erabakitakoa, horren bidez onetsi zen Eraikuntzako Kode Teknikoa, EKT, eta 842/2002 Tentsio Baxuko Araudi Elektroteknikoan erabakitakoa, eta Plan Orokorreko Hirigintza Arauetan eta Udal Ordenantzetan erabakitakoa, eta laneko segurtasunaren eta osasunaren inguruan indarrean dauden

gainerako xedapenak.

7.- Baimen hau eskuratzeak ez du esan nahi indarrean dagoen legediaren arabera derrigorrezkoak diren gainerako baimenak eskuratu behar ez direnik.

8.- Baimenak eskualdatu daitezke, lizentzien eskualdaketarako indarrean dagoen araudiari jarraiki, eta Udalari idatziz jakinarazi ondoren.

9.- Obrak hasi eta gero aldaketak egin nahi badira, Udalari idatziz eman beharko zaio horren berri.

10.- Lanak egitean nahitaez konpondu beharko dira obrek bide publikoan sortu dituzten galerak, eta horietan segurtasun-, osasungarritasun- eta garbitasun-baldintzak mantendu beharko dira.

11.- Kaleetan ezingo da aldamiarik, eskailerarik, makinarik, tresnarik edo tresneriarik jarri, ezta inolako objektu eta eraikuntzarako materialik ere, jendearen joana oztopatzen badute eta horretarako berariazko baimenik ez baldin badago. Udaltzaingoak bide publikotik ken ditzake elementu horiek eta baimendu gabeko edukiontziak.

12.- Jakinarazita baimendutako bide publikoko okupazioek uneoro errespetatuko dituzte bai ibilgailuen trafikoa eta baita oinezkoen joan-etorriak ere.

HAMAIKAGARRENA.- KONTROL-ARAUBIDEA ETA UDALAREN IKUSKAPENA.

Udaleko zerbitzu teknikoek indarrean dagoen legediak emandako ikuskapen-funtzioak gauzatuko dituzte, hirigintzako legeria betetzen dutela egiaztatzeko. Horretarako, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 217. eta 218. artikuluetan araututako ahalmen eta funtzioak erabiliko dituzte.

HAMABIGARRENA.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.

Udal Administrazioak jakinarazitako jardueren inguruko arau-hausteren baten berri izango balu, xedapen orokorrak aplikatuko zaizkio, dagokion zehapen-prozeduraren bidez, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/06 Legean xedatutakoari jarraiki.

HAMAHIRUGARRENA.-

Ordenantza hau indarrean sartuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta hamabost eguneko epean, apirilaren 2ko 7/85

Legeko 70.2 artikuluan xedatutakoari jarraiki.